



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

## **EIDER ESNAOLA CARRERA IBARRAKO UDALEKO IDAZKARIA NAIZEN HONEK**

### **ZIURTATZEN DUT:**

2024ko maiatzaren 13ko ohiko Tokiko Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu zuen:

#### **1.- AURREKARIAK.**

##### 1.1.- Eskaera.

G20808341 IFZ zenbakidun HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAREN ordezkaria den 15.913.855-V NAN zenbakidun Eusebio Uberetagoena Arratibel jaunak, 2024ko apirilaren 26an Ibarako Udalean 1278 sarrera erregistro zenbakia duen "Hauspoa kultur elkarteak 2024 urtean burutuko duen programazioa" proiektua gauzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen.

Hauspibarra kultur elkarteak, besteak beste, 2024an zehar honako ekimenak antolatzeko asmoa du:

- **Santa Ageda bezpera otsailaren 4an.**
- **Korrika martxoaren 23an.**
- **Sanjoan bezpera ekainaren 23an.**
- **"Ibarra, azoka eta piparra" azoka irailaren 15ean?.**
- **Babarrunaren eguna azaroa/abenduan (data zehazteke).**
- **Olentzeroren jaitsiera abenduaren 24an.**
- **Urtean zehar hainbat tailerren antolaketa: gastronomia, zeramika, eta abar.**
- **Langostino Moto elkartearekin batera antolatutako jarduera-uztailean**
- **Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean sortu daitezkeenak.**

##### 1.2.- Espedientea izapidetzea.

2024ko apirilaren 26an 2024WDI20003 Udal espedientea sortu da.

##### 1.3.- Udal aurrekontuan dotazioa.

2024ko Udal aurrekontuan 1.09.334.00.481.01 2024 (261) Dirulaguntza zuzena: Hauspibarra kontu-saila 21.000,00 euroko dotazioarekin sortua dago.

##### 1.4.- Txosten teknikoak eta hitzarmen zirriborroa.

- 2024ko apirilaren 26an Kultura eta Gazteria teknikariak 2024-KG-TXOS033 txostena luzatu du.
- 2024ko apirilaren 26an Kultura eta Gazteria teknikariak dirulaguntzaren hitzarmenaren zirriborroa aurkeztu du.

#### **2.- HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAREN PROIEKTUA.**

##### 2.1.- Elkartearen sorrera eta ibilbidea.



Hauspibarra kultur elkarteak 26 urteko ibilbidea du Ibarra eta urtean zehar gauzatzen duen egitaraua egonkorra da.

1998an Ibarra kultur elkarte ezberdinak ikastolarekin batera Kilometroaren antolakuntzak eskatzen zituen beharrei aurre egiteko biltzen hasi ziren. "Kilometroak" gauzatu ondoren bilera haiei jarraipena emateko aukera eta beharra ikusi zen, eta aldi berean, momentuko kultur elkarte guztiak bateraturik behar haiei erantzun zien erakunde kultural bat sortzea erabaki zen.

Guzti horren ondorioz sortu zen HAUSPOA ELKARTEA (Hauspibarra kultur elkartearen izenpean erregistratu behar izan zen Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroak hala gomendatuta), biztanleen ilusio eta proposamenak gauzatzeko, elkarteetako zein horietaz kanpo norberak izan zitezkeen proposamenak entzun eta aurrera eramateko.

## 2.2.- Elkartearen helburuak.

Hauspibarra Kultur Elkartearen helburuak dira euskal kultura zaintzeko eta zabaltzeko lanean eta jardunean aritzea, irabazteko asmorik gabe.

Helburu horiek lortzeko honako ekintza hauek eramango dira aurrera, ezarritako legezko baldintzak bete ondoren:

- (a) Gure herriko ohiturak kontserbatzea
- (b) Borondatezko lan komunitarioa bultzatzea
- (c) Euskararen erabilpena sendotzea
- (d) Antzeko xedea duten elkartearen arteko elkarlana sustatzea
- (e) Aisialdirako aukerak sustatzea

## 2.3.- Elkartearen proiektua.

Hauspibarra Kultur Elkarteak Ibarra herri bizia eta dinamikoa izan dadin lan egiten du. Herritarren parte-hartzea sustatuz, euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte honek antolatzen dituen jarduerak guztiek hartzaile pluralak dituzte beti eta erabat euskaraz funtzionatzen duen elkarte da. Orain artean garatu dituen jarduerak guztietan parte-hartzea oso nabarmena izan da eta horren isla da herrian eta herriko dinamika kulturean elkarteak duen harrera zein eta errekonozimendua.

## 3.- IBARRAKO UDALAREN 2024-2027 EPEALDIRAKO DIRULAGUNTZA PLAN ESTRATEGIKOA.

Ibarra Udalak 2024ko martxoaren 21n Udalbatzan onartutako 2024-2027 dirulaguntza plan estrategikoan, Hauspibarra Kultur Elkartearentzat dirulaguntza izendun bat dago.

### 3.1.- Dirulaguntza modalitatearen justifikazioa.

Zergatik dagoen izenduna eta ez konkurrentzia?. Hona hemen arrazoiak:

1. Herrian dagoen euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte bakarra da.



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2. Euskal kultura-ondare immateriala diren ohitura ezberdinak bultzatzen dituelako, herritarren artean zabaltzen dituelako eta haien transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarrari izen ona eta ospea ematen diolako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal kultura herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarrako herritarrei oro har, herrian bertan euskal kulturaren murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

### 3.2.- Euskal kultura ondareari dagokion legeria.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aitortzen duenez, udalerrien eskumena da udal ondare historikoa babestea, kudeatzea eta kontserbatzea. Aipatu eskumenaren harira, maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 legeak zehazten duenaren baitan, Hauspibarra Kultur Elkartek sustatzen dituen kultur adierazpenak (bertsolaritza, gastronomia, musika, usadio sozialak, etab.) euskal kultura-ondare immateriala dira, eta ondorioz, babestu beharra dago. 6/2019 legearen 56.1. artikuluan ezartzen denaren baitan, babesaren helburua izango da etorkizunean hura zainduta eta bideragarri egongo dela bermatzea, ondare hori identifikatzeko, zenbait euskarritan hari buruzko dokumentazioa ezartzeko, ikertzeko, begiratzeko, berpizteko, sustatzeko eta erakusteko beharrezkoak diren neurriak eta baliabideak ezarriz.

### 3.3.- Dirulaguntza emateko organo eskuduna.

2023ko uztailaren 19ko 467/2023 Alkate Dekretuan ebazten denari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzordeak onartuko ditu dirulaguntza emateko oinarriak eta sinatu behar den hitzarmena. Dirulaguntzaren zuri-keta Alkate Dekretu bidez ebatziko du Alkateak.

### 3.4.- Bestelako legedi orokorra.

- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra.
- Azaroaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzei buruzko lege orokorra garatzen duen Erregelamendua.
- Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Aurrekarien berri izanik, hau da

## ERABAKIA

**LEHENA.-** Diruz laguntzea Hauspibarra Kultur Elkartea honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare immateriala diren ohitura ezberdinak bultzatzen dituelako, herritarren artean zabaltzen dituelako eta haien transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.

4. Ibarrari izen ona eta ospea ematen diolako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal kultura herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarrako herritarrei oro har, herrian bertan euskal kulturaren murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

**BIGARRENA.-** Honako jarduerak hauek jartzea diruz lagungarri gisa:

- Santa Ageda bezpera otsailaren 4an.
- Korrika martxoaren 23an.
- Sanjoan bezpera ekainaren 23an.
- "Ibarra, azoka eta piparra" azoka irailaren 15ean?.
- Babarrunaren eguna azaroa/abenduan (data zehazteke).
- Olentzeroren jaitsiera abenduaren 24an.
- Urtean zehar hainbat tailerren antolaketa: gastronomia, zeramika, eta abar.
- Langostino Moto elkartearekin batera antolatutako jarduerak-uztailean
- Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean sortu daitezkeenak.

**HIRUGARRENA.-** Ematea 21.000,00 euroko dirulaguntza zuzena Hauspibarra Kultur Elkarteari.

**LAUGARRENA.-** Egoztea aipatu diru kopurua 2024ko udal aurrekontuko 1.09.334.00.481.01 2024 (261) partida izendunari.

**BOSGARRENA.-** Aipatu dirulaguntza hitzarmen bidez gauzatzea. (I.ERANSKINA)

**SEIGARRENA.-** 467/2023 Alkate Dekretuaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordea izango da dirulaguntza honen oinarriak eta hitzarmena onartzeko organoa, 21.000 euro arteko dirulaguntza izenduna izango delako. Dirulaguntzaren zuriaketa Alkate Dekretu bidez ebatziko du Alkateak.

**ZAZPIGARRENA.-** Dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratzea.

**ZORTZIGARRENA.-** Eskatzea Idazkaritzari eta Kontu-Hartzailezari hitzarmen zirriborroari eta dirulaguntzari buruzko txostena egitea.

*Eta honela jasota gera dadin eta bidezko diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut lehendakariak ikus-onetsita, Ibarran, 2024 maiatzaren 13an.*

Igor Zapirain Lizarribar  
Alkatea

Eider Esnaola Carrera  
Idazkaria

